



# ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO  
Tfona.: 943-31 30 30 e-posta: [infogeldo@euskalerrria.org](mailto:infogeldo@euskalerrria.org)

## IGELDOKO HERRI KONTSEILUA BERRITZEKO HAUTESKUNDEAK EKAINAREN 19AN

**IGELDOKO IGOERA:  
Apustutik lasterketa  
herrikoira /4-6**

### AURKIBIDEA

Herri Kontseilua berritzeko  
hauteskundeak /2

Udal eta Foru  
Hauteskundeetako emaitzak /2

Azoka txikia, Gurasoen  
Elkarteak antolatuta /2

Udaberriko Jaia /2

Igeldoko Gaztiak /3

Urrezko Lapako irabazleak /3

Ieltxo kultur elkarteak /3

Kixmi aisialdi taldea /3

**Herrian ze berri?:**

Ttonttorro Jai Batzordea /7

**Bota Puntua /8**

Kaixo herrikide!!!

Hauteskunde kontuekin gatoz oraingo alean, izan ere, Udal eta Foru Hauteskundeak pasa berri, eta hauteskundeak ditugu berriz Igeldon. Hain zuzen, Igeldoko Herri Kontseilua berritzeko hauteskundeak izango dira ekainaren 19an. Horrez gain, nabarmendu nahi izan dugu, besteak beste, gainean ditugun San Pedro jaiak eta jaien barruan izaten den Igeldoko Igoera. ■

## 23 hautagai Herri Kontseilua osatzeko

Herri Kontseilu berria osatzeko hauteskundeak ekainaren 19an izango dira. Bakoitzak 3 hautagai aukeratu behar ditu.

Igeldoko Herri Kontseilu berria osatzeko hauteskundeak izango dira ekainaren 19an. Guztira, 23 hautagai daude eta bakoitzak 3 aukeratu behar ko ditu, gehienez. Boto gehien lortzen dituzten zazpi hautagaiek osatuko dute Herri Kontseilu berria.

Halaxe erabaki zen maiatzaren 1e-

an egin zen Herri Batzarrean. Batzarrean 73 pertonek hartu zuten parte. Maiatzaren 1etik 20ra, hautagai izateko proposamenak jaso dira, 45 guztira, eta 72 pertsonako zerrenda osatu da. Horietatik, 23k eman dute baiezkua. 23 hautagai horien zerrendak aste honetan banatuko dituzte etxeetara. ■

## Bilduk lortu ditu boto gehien, Udal eta Foru Hauteskundeetan

Maiatzaren 22ko Udal eta Foru Hauteskundeetan Bildu koalizioak lortu zituen boto gehien Igeldon. Alde handiagatik nagusitu zitzaizen Bildu, gainerako alderdiei. Donostiako Udal Hauteskundeetan 295 bozka lortu zituen. Bigarren indarra EAJ-PNV izan zen, 74 botorekin. Hirugarrena, berriz, PP 68 botorekin. Gipuzkoako Diputaziorako hauteskundeetan, bi boto gutxiago lortu zituen Bilduk eta EAJ-PNVk, 15 gehiago. ■

Donostiako Udala / Gipuzkoako Batzar Nagusiak			
Alderdiak	Botoak	Alderdiak	Botoak
Bildu	295	Bildu	293
EAJ-PNV	74	EAJ-PNV	89
PP	68	PP	65
PSE-EE	27	PSE-EE	24
Aralar	24	Aralar	23
Hamaikabat	14	Hamaikabat	11
EB-Berdeak	9	EB-Berdeak	10
UPyD	6	UPyD	5
Plazandreak	3	Plazandreak	2
PACMA	2	PUM+J	2
P.L.IN.	1	P.L.IN.	1
Txuriak	14	Txuriak	13
Baliogabeak	12	Baliogabeak	11

Igeldoko emaitzak.

## Azoka txikia, Gurasoen Elkarateak antolatuta

Mendizorrotz Gurasoen Elkarateak azoka txiki bat antolatuko du dirua ateratzeko, Igeldoko eskolako umeentzat. Norberak erabiltzen ez dituen trasteak eta arropa bildu, eta San Pedrotan jarriko dute salgai, 1-5 euro inguruan. Materiala biltzeko Kutzako kajeroan egongo dira astelehen, ostegun eta ostiraletan, 17:00etatik 19:00etara. Ez dute onartuko egoera kaxkarrean dagoen ezer. ■

## Asto karrerak giroa eta umorea jarri ditu, Udaberri Jaian

Maiatzaren 13, 14 eta 15ean Udaberriko Jaia ospatu zen Igeldon, eta asto karrerak sekulako arrakasta izan zuen. Karrera, San Ixidro egunean izan zen bazkariaren ostean, eta giro eta umore ederra jarri zituen. Hodei Irigoien Plazetxeoak irabazi zuen Txikiririneko astoarekin. Dema ere izan zen bazkalaurretik eta oso polita eta originala izan zen.

Aurtengo Udaberriko Jaiari Akelarrearekin eman zitzaion hasiera, ostiraletan, eta eguraldi kaxkarra tarteko, ez zen nahi adina herritar animatu. Dena dela, bildutakoak giro ederrean ibili ziren. Larunbatean, berriz, arratsaldean sukaldaritza tailerra antolatu zuen Kixmik, eta gauean, antzerki emanaldiaz gozatzeko aukera izan zen. ■



Izaskun Etxeberriak irabazi zuen San Ixidrotako mariskada



# Natura, euskera, berdintasuna, elkartasuna... eta Igeldo bizirik nahi dituzte herriko gazteek

Igeldoko Gaztiak serio ari dira lanean Igeldon eta Igeldotik kanpo behar eta nahi dituzten baloreen alde. Besteak beste: Igeldo, bere izaerarekin, bizirik mantentzea, euskera eta euskal kultura bultzatzea, natura eta ingurumena errespetatu eta babestea, baserri arloa indartzea, oinarrizko eskubideak errespetatzea, ber-

riedik herrian zabaltzeko, Prozesio Alternatiboa egin zuten apirilaren 23an eta ekainaren 4an lokala dekoratu zuten mural bat eginez, denen artean. *Axpi* Hernaniko ilustratzailearen laguntza izan zuten. Horrez gain, ekainaren 5ean, goiz pasako ibilia antolatu zuten, herritar guztiei irekia, Igeldotik Oriora. Kostako bidetik joan ziren 10 lagun.

Orain, herriko festei begira daude, eta Gazte Eguna antolatzeaz gain, kamiseta, metxero eta txapak jarriko dituzte salgai diru pixka bat atera eta ekintza gehiago antolatzeko asmoz. ■



dintasuna, elkartasuna, askatasuna... Igeldoko gazteek balore ho-



## Donostira joan dira aurtengo Urrezko Lapak

Igeldoko XXXIV. Mus Lapa Saria 2011ko txapelkunak maiatzaren 13an erabaki ziren. Antonio eta Manuel donostiarrak izan dira Urrezko Lapak eta txapelak eraman dituztenak, 730 punturekin. Bigarrenak Juantxo eta Aitor usurbildarrak izan dira, 535 punturekin. Mikel eta Karlos igeldoarrak hirugarren geratu dira 403 punturekin, eta laugarren postua ere igeldoarentzat izan da, Felix eta Joseantzat, hain zuzen. Guztira, 398 puntu lortu dituzte.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, aurtun bestetan baino parte hartzaile gutxiago izan da, batez ere azken egu-



Antonio eta Manuel donostiarrak izan dira aurtengo irabazleak.

nean. Txapelketa apirilaren 29an, maiatzaren 6an eta 13an jokatu zen. Lehenengo egunean 36 bikotek hartu zuten parte, bigarrenean 35ek eta azken egunean 28k. ■

### Patinaje ikastaroa, Ieltxorekin

Ieltxo kultur elkarteak amaitu du Zine jana egitasmoa. Azken emanaldia maiatzaren 29an izan zen. Ieltxo gus-tora dago lortutako emaitzarekin, jende dexentek erantzun baitu bai haurren emanaldietan bai helduenetan ere. Eta zine jana bukatuta, ekintza berria antolatu du. Ekainaren 10ean patinaje ikastarotxo bat izango da 17:00ak aldera. Ondoren merienda txiki bat ere izango da. Ikastaroaren prezioa: 3 euro. ■

### Udaleku irekiak, Kixmirekin

Urtero bezala, udaleku irekiak antolatu ditu Kixmik, uztailaren 5etik 31ra. Bi taldetan banatuko dituzte umeak. Izena emateko epea bukatu da. Bestalde, Udaberriko Jaiaren barruan, larunbat arratsaldean sukaldaritza tailerra egin zuten. Frutak txokolatetan busti eta pintxo morunoak egin zituzten. Argiñanoren pare ibili ziren 14 ume. ■

## ERREPORTAJEA: XXXI. IGELDOKO IGOERA HERRIKOIA



Igeldoko Igoera beti izan da kros herrikoia eta aldarrikapenerako ere erabili izan da; 2008ko lasterketa, esaterako. 12 pertsonak 'Igeldo Herria' aldarrikatu zuten. Argazkian azaltzen da, besteak beste, Joxe Dorronsoro (I letra) hasiera hasieratik parte hartu izan duen eta oraindik jarraitzen duen igeldotar nagusia.

Herriko festak iragarritz, Igeldoko Igoera kros herrikoia ekainaren 19an izango da, aurten 31. aldiz, eta Orri Informatibo honetan, historiari buruz-

ko datu batzuk bildu nahi izan ditugu. Horrez gain, azpimarratzekoak iruditu zaizkigu gaur egun parte hartzen duten hainbat pertsona eta talde.

## Igeldoko Igoera: apustutik jaien parte izatera pasa den lasterketa herrikoia

Igeldoko Igoerak aspaldidanik izan du apusturako fama. Ondarretatik hasi eta Mendizorrotzeraino korrika igotzea ez da broma; 7,2 kilometroko ibilbidea eta ia dena maldan gora. Jai Batzordea herriko jaien barruan igoera antolatzen hasi aurretik, apustu asko izan ziren. Horietako bat, Narziso Lizarazuk eta Leon Albenizek (Iruntxiberri) jokaturakoa izan zen.

Jai Batzordeak 1981 urtean ekin zion kros hau antolatzeari, eta lehendabiziko urteetan, jaien azkeneko igandean izaten zen, hau da, gaupasa egunaren ondorenean. Bezperan jai giroan ibilitako asko atera izan ziren batere lorik egin gabe korrika; benetako sasoiaren zire-

la erakusteko modu aproposa!

Lehendabiziko urtean, 89 korrikalari atera ziren Ondarretatik eta 80 iritsi helmugara. Horietatik 11 emakumezkoak izan ziren. Nahiz eta emakumeen presentzia txikiagoa izan beti, lehendabiziko urtetik animatu ziren eta hauek izan ziren lehen pausoa eman zutenetako batzuk: Begoña Olasagasti, Garbiñe Urruzmendi, Maite Etxabe, Larraitx Zubeldia...

### 1988an, igeldotar bat

#### txapeldun: Moises Odriozola

Igeldoko Igoera kros herrikoia izan da beti, herriko hainbat gizon eta emakume parte hartu izan dute urteetan zehar, baina kanpoko jendea ere ingu-

ratu izan da urtero. Gehienetan, kanpotarrek irabazi izan dute, baina 1988 urtean Moises Odriozola Egiioleta Berri baserrikoa izan zen lehendabizikoa. (26 minutu eta 27 segundo).

Aipagarria den beste sari bat ere eman zen 1997 urtean. Orduan 18. igoera izan zen eta Ramon Urruzmendi sari bat eman zitzaion 18 urtetan segidan atera izanagatik.

Bestalde, lehendabiziko Igeldotarrak ere beti jasotzen du saria eta 30 urtean asko izan dira sari hau jaso duten igeldotarrak. Azkena aipatzearen, Aitor Etxeberria, Ganbaetxekoa. Hura izan zen lehenengo igeldotarra, iaz (29 minutu eta 42 segundo).

## Igeldoko bizkorrena, bitan

Aitor Etxeberria izan zen iaz lehenengo igeldotarra, baina ez zen lehenengo aldia izan. 2008an ere Igeldoko bizkorrena izan zen 16 urte besterik ez zituela. 8 urterekin atera zen lehenengo aldiz Igeldoko Igoeran eta pare bat urtez izan ezik, urtero hartu izan du parte. Txikitatik, kirol guztietan gustatu izan zaiola konpetitzea azaldu dio Orri Informatiboari eta horregatik hasi zela ateratzen: “Txikititan, krosean parte hartu baino lehenago, ikustera joaten nintzen eta korrikalariak ikustean, nik ere parte hartu nahi nuela argi neukan. Orduan, hain txikia ez nintzenez, gurasoei komentatu nien eta baietz esan zidatenean, ez nuen bi aldiz pentsatu”.

“**A. Etxeberria:** Nere helburua 30 minututik jaistea zen eta hori lortzeak harritu ninduen, batez ere ”



Aitor Etxeberria (2008ko argazkia).

Helburuari dagokionez, hasieran ez zuela denbora jakin bat egitea helburu, azaldu du Etxeberriak, “nahiz eta ahalik eta ondoen egiten saiatu beti”. Baina azken 3 urteetan, batez ere, behin bere burua gehiago ezagututa, helburuak jarri izan dituela aitortu du: “Orain dela 3 urte 32 minutu azpitik egitea; orain dela bi urte 31 minutu; eta lehenengo urtean 30 minutu azpitik”. Eta iaz lortu zuen helburua betetzea. Dexente entrenatuta eta fisikoki ondo egon arren, marka hori lortzeak harritu zuela azaldu du.

Aurten, Igeldoko Igoera bezperan, estropada dauka Luancon eta ez daki krosera garaiz iristeko aukerarik izango duen. Hori bai, iristen bada ateratzeko asmoa dauka, “nahiz eta jakin, kondizio onenetan ez naizela egongo. Eta lehendabizi geratzen saiatuko naiz, horretan ez dago dudarik!” (parrez).

## Joxe Dorronsoro, Igeldoko Igoera hasi zenetik

Igeldoko Igoerak 31. edizioa du aurten eta badira igeldotar batzuk hasiera hasieratik parte hartu eta oraindik jarraitzen dutenak. Horien artean dago Joxe Dorronsoro. Krosa hasi zenetik, urtero hartzen zuen parte, eta denbora batez utzi egin bazuen ere, orain dela 6-7 urte berriz hasi zen. Eta aurten ere Igeldoko maldan gora ikusiko dugu.

Parte hartzen duen Igeldoko zaharrena da bera. Herriko festen barruan giroa sortzeko eta gustatzen zaiolako ateratzen dela dio: “Bidean zehar animo ona egoten da eta nahiz eta gogorra izan, gustora ateratzen naiz”. Eta helburu bakarra du: “Ondo bukatzea”. Krosari buruz galdetuta, Igeldoko Igoera oso gogorra dela azaldu dio Orri Informatiboari: “Nerekin koinziditu izan duten Amarako ikastolako zenbait gurasok (lagunak), Donostiako Maratoia nahiago zutela esaten zuten”. Tramorik zailena edo arriskutsuena, Leku

“**J. Dorronsoro:** Bidean zehar animo ona egoten da eta nahiz eta gogorra izan, gustora ateratzen naiz. Nire helburua bukatzea izaten da; ondo bukatzea ”

Eder artekoa da bere esanetan: “hor kontuz ibili behar da, betetzen bazara, buelta emateko zailtasunak izaten baitira. Hasieran lasai hartu behar da, gero Iturrietara arte erritmoa bizkortu daiteke, baina Biorretatik bukaerainoko zatia ere, gogorra da. Bukaerarako indarrak gorde behar dira. Lasai igo beharreko krosa da, guretzat behintzat!”. Sekretua, edozein krosetan bezala, gor-

Juan Joxe Gabilondo (2009ko argazkia).

“**J. Gabilondo:** Ikusleen txaloak eta builak asko eskertzen dira. Korrika ateratzen ez direnei animatzera joateko esango nieke ”

putza zaintzea eta entrenatzea dela dio: “Fondoa hartu behar da eta maldetan entrenatzea ere inportantea da”.

## Beste kros askotan ibilita, Igeldon ere bai

Karrera ezberdinetan ateratzeko zailtasuna duten herritar asko dira Igeldon. Horieta bat da Juan Joxe Gabilondo eta “beste kros askotan ibilita, herrikoan ere atera behar”, dio. Igeldoko Igoeran ateratzen dela 20 urte inguru badira, eta nahiz eta urte batzuetan ez atera, azken urteetan urtero ateratzen saiatzen da.

Kros askotan ibilia izaki, konparatzen, Igeldoko Igoeran jende gutxiago ateratzen dela dio eta pena dela: “Igeldoko Igoeran badira zati batzuk ia bakarrik joaten zarena eta ambiente gutxiago izaten dena. Herriko jendeari parte hartzera animatu behar zaio”. Eta ez korrika egitera bakarrik, parte hartzaileak animatzera joateko ere dei egiten die herritarrei: “Ikusleen animuak beharrezkoak izaten dira. Korrikalarien artean ere izaten dira elkar animuak, baina ikusleen txaloak eta builak asko eskertzen dira. Igoera guztian zehar



**Ana Letamendia, Birjina Zelarain, Marta Arritokieta eta Arantxa Txintxurreta eskolako lau ama iaz atera ziren lehenengo aldiz. Bosgarren ama bat topatu zuten lasterketan: Izaskun Karrera.**

animatzen egotea polita izango litzateke. Korrika ateratzen ez direnei animatzera joateko esango nieke”.

### **Iaz eskolako bost ama, eta aurten emakume gehiago**

Hainbat urtetan, Igeldoko emakumerik ez zela krosean ateratzen eta orokorrean emakume gutxi parte hartzen zutela ikusita, Igeldoko eskolako lau amak parte hartzea erabaki zuten iaz. Ana Letamendia, Birjina Zelarain, Marta Arritokieta eta Arantxa Txintxurreta izan ziren. Eta karreran bosgarren ama topatu zuten: Izaskun Karrera.

“**A. Txintxurreta:** Neskak animatu nahi ditugu: guk egiten badugu, edozeinek egin dezake!”

Aurten ere, horietako batzuk ateratzeko asmoa dute iazko helburu berarekin: “modu duinean goraino iristea, ez dela gutxi!”, azaldu dio Orri Informatiboari Arantxa Txintxurretak. Aurten, Igeldoko neska gehiago ere animatuko dira eta oso pozik daudela aitortu du Txintxurretak eta neska gehiagori egiten diete dei animatzeko:

“Lehenengo urtean primeran pasa genuen, jendeak asko animatu gintuelako. Noski, guk daramagun erritmoak ikusleekin zertxobait hitz egiteko aukera ematen digu. Eta hemendik neskak animatu nahi ditugu: guk egiten badugu, edozeinek egin dezake!”.

Oso oroitzapen polita dute iazko lasterketarena: “Oso polita izan zen, Bostak eskutik helduta iritsi ginen... Kopa ere irabazi genuen Igeldoko lehen neskak izan ginelako. Nabarmenezkoa da guk dugun meritua... azkenak iritsi eta kopa irabazi!”. Kopa Elkartearen utzi zuten, “mundu guztiak ikus dezan Igeldoko neskek ere korrika egiten dugula”.

Iazko boskotetik, Txintxurreta eta Arritokieta seguru aterako dira aurten, eta Maddiolako Edurne ere animatu zaie, lagun batekin.

### **Beste bi neska igeldotar, aurten lehenengo aldiz**

Aurrekoetz gain, aurtengo igoeran beste bi neska gehiago ere izango dira Igeldotik: Maider Illaramendi eta Ainhoa Uranga. Ateratzeko asmotan eta entrenatzen neska gehiago izan badira ere, azkenean bi horiek bakarrik izan dira aurrera egin duten

## **Izen ematea ordaindu egin behar da, aurten lehenengo aldiz**

XXXI. Igeldoko Igoera Herrikoa ekainaren 19an, igandean izango da. Ohi bezala, Ondarreta hondartza paretik atera eta Mendizorrotzeraino igo beharko dute parte hartzaileek; hau da, 7,2 kilometroko lasterketa izango da. Goizeko 10:30etan abiatuko dira eta 10:00ak arte izena emateko aukera izango da. Aurretik ere eman daiteke izena, [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) helbidetan eta antolatzaileek azaldu dute kome-ni dela aurretik ematea. Korrikalari bakoitzak 3 euro ordaindu beharko ditu izena aurretik emanez gero; egunean bertan, 5 euro. Aurten lehenengo aldiz izango da izen ematea ordaintzen dela, segurua eta beste hainbat gastu ordaintzeko. ■

“**A. Uranga:** Donostiko San Silbestre lasterketan parte hartu genuen, esperientzia ona izan zen eta handik etorri zen Igeldoko Igoeran ateratzeko ideia”

*baliente* bakarrak. Illaramendi eta Uranga aurten aterako dira lehenengo aldiz eta nolatan animatu diren galdetu die Orri Informatiboak: “Iazko herriko jaietan, lagunartean atera zen elkarrekin korrika egitera joateko ideia. Batzuk goizez, beste batzuk arratsaldez... bakoitzak ahal zuenaren arabera izerdi pixka bat botaz ondo pasatzeko aukera polita iruditu zitzaigun. Gero, batzuk, Donostiko San Silbestre lasterketan parte hartu genuen, esperientzia ona izan zen eta handik etorri zen Igeldoko Igoeran ateratzeko ideia. Hasiera batean agian brometan... Egia esan, nik bereziki, aspalditik neukan buruan. Beti esaten nuen gutxienez urteren batean atera behar nuela, eta badirudi aurtengoa izango dela”, azaldu du Urangak.

Helburuari dagokionez, ondo pasatzea da beraien asmoa: “Ez dut uste marka berririk jarriko dugunik aurtengo urtean behintzat, akaso datorrenean! (parrez). Lasai-lasai igo, elkarrekin bazkaldu eta ondo pasa nahi dugu”. ■

# Jai Batzordea lanean ari da jada, ate joka ditugun herriko pestak antolatzen

San Pedro jaiak gainean ditugu eta guztia prest izateko, Tonttorro Jai Batzordea lanean ari da. Orri Informatiboa taldekideekin bildu da, atzeko lan horren berri izateko.

Nahiz eta herriko jaiak ekaina bukaran izan, Tonttorro Jai Batzordea, normalean, otsaila bukaera martxoan hasieran hasten da jaiak prestatzen; eta aurten ere hala izan da. Hasieran, bilerak 2 astetik behin egiten dituzte, baina jaiak hurbiltzen doazen heinean, bilerak eta lanak ere ugartzen joaten dira. Aurten, 10 pertsonen osatu dute taldea: Mikel Altuna, Ainara Lizarazu, Ainhoa Esteban, Nerea Zendoia, Ainhoa Gorostidi, Edurne Zendoia, Maider Illarramendi, Ainhoa Uranga, Mikel Urruzola eta Mikel Olasagastik. Nahiz eta bilera guztietan denak ez elkartu beti, guztiek izaten dute lantxoren bat egiteko.

Hasierako lana, erromeri eta berbenetako taldeak eta bertsolariak lotzea izaten da. Nahi diren talde eta bertsolariak ekartzeko, garaiz mugitu behar baita! Ondorenean, administrazio kontuak izaten dira lotu beharrekoak, baimenak eskatu etb. Hau da, gauzak ongi egiteko asmoz, tramiteak fin-fin!

### **Benetan eskertzekoa, herritarren aportazioa**

Administrazio kontuak aurreratuta, jaietako programa osatzeari ekiten diote; hau ere txukun egin beharreko lana izaten da. Eta jaiak hasi baino 10 egun lehenago programa Donostia Kulturari entregatu behar zaio, hauen



**Jai Batzordeko kideak martxoan hasieratik ari dira bilerak egiten jaiak prestatzeko.**

oniritzia behar izaten baita, diru laguntza jaso ahal izateko. Hala ere, urtetik urtera jasotzen den laguntza gutxitzen doala diote jai batzordekoek, eta benetan eskertzekoa, herritarren aportazioa izaten dela; sobretan, eskean eta anuntzioen bidez jasotzen den diruarekin ateratzen baitira jaiak aurrera.

Programa osatzeko jai batzordekoek lan taldeak osatzen dituzte, baita herriko talde ezberdinekin ere. Kixmik eta Pelota elkarteak aspalditik antolatu izan ohi dute, euren kabuz, haurren eguna eta pelota txapelketa. Lan egiteko modu hau pixkanaka zabaltzen joateko asmoa dutenez, aurten, Igeldoko Gaztiak gazte eguna antolatzeaz arduratu dira, Din-din elkarteak herri bazkarian zerbitzari lanak egingo ditu, eta Itsas Aurre elkarteak bakailu tortilla txapelketa antolatuko du.

### **Jende berria eta ia bizi erdia daramatenak**

Jai Batzordetik jende asko pasa da azken urteetan zehar, aurten taldea osatzen dutenen artean ere ezberdintasunak daude jaiak antolatzen daramaten urte kopuruaren arabera. Batzuk

aurten hasi dira, beste batzuk 5 edo 6 urte inguru ari dira lan horretan eta bada ia bizi erdia daramanik ere! Sartu berriek, jende berriaren beharra zegoela entzun zutenean eman zuten pausua, jaien atzean zer zegoen jakiteko kuriositateak bultzatuta ere inguratu ziren beste batzuk, baina guztiak jaiak antolatzeke gogoz eta ilusioz.

Jai Batzordean dauden kideek jaiak zer helbururekin antolatzen dituzten ere jakin nahi izan du Orri Informatiboak, eta honako erantzunak eman dizkigute: "herriari bizia emateko, ohitura mantentzeko, ongi pasatzeko, herritarrek ekintza ezberdinetan parte-hartzeko eta herritarren artean harremanak lantzeko eta elkartzeko".

Azkenik, aurtengo jaietan azpimarratzeko zerbait baden ere galdetu diegu eta gazte egunean izango diren jolas berriak aipatu dizkigute: Wii, pin-pon, eta tira-goma txapelketak izango omen dira. Bestalde, herritar guztiei Jai Batzordeko taldean lan egitera animatzeko dei egiten diete, nahi duenarentzat ate irekia baitago. Eta nola ez, jaietan parte hartuz ondo pasatzeko, baina pasatu gabe! ■

**IGELDOKO HERRI KONTSEILUA BERRITZEKO HAUTESKUNDEAK**



**Igeldoko talde eta elkarte ezberdinek dei egiten diete herritarrei bozkatzera joateko.**

**“Herri ordezkari izatea beharrezkoa dugulako, ekainaren 19an eman zure botoa!”**

Ekainaren 19an, hauteskondeak izango dira Igeldon, Igeldoko Herri Kontseilua berritzeko. Herri Kontseilua Igeldoren ordezkaria izango da, orain arte bezala, eta horrek duen garrantzia azpimarratuz, herriko talde eta elkarte ezberdinek bozketan parte hartzeko dei egiten diete herritarrei.

Talde eta elkarteak honakoak dira: Kixmi aisialdi taldea, Lezkarri Abesbatza, Ttonttorro Jai Batzordea, Mendizorrotz Guraso elkarte, Din-din elkarte, Itsas Aurre elkarte, komunikazio taldea, Igeldoko Gaztiak, Lizardi pelota eskola eta Ieltxo kultur elkarte.

Hainbat arrazoi eman dituzte Herri Kontseiluaren beharra azaltzeko: “Argi dago, gaur egun ditugun zerbitzu, ekintza, festa, talde, elkarte... gehienak Herri Kontseiluaren bidez lortu ditugula; esaterako, kultur etxea, ludoteka, Haur Txokoa, eliza ondoko lokala, frontoia, Din din elkarte, eskola berria, Orri Informatiboa, udaberriko eta udazkeneko jaiak, hainbat herri bide...”

Horrez gain, Igeldo, igeldoarron beharren arabera garatzen joateko lan egin du, beharrezko ez ziren eta kaltegarriak ziren hainbat proiektu atzera botata eta egindako etxebizitzak herritarrentzako izatea lortuta, besteak

beste. Azken finean, Igeldo bizirik dagoen herria izateko lan egin du.

Eta Igeldo bizirik mantendu eta behar duen garapena emateko oraindik lanean jarraitu behar da, eta horregatik, beharrezko dugu ordezkari izatea, hau da, Igeldoko Herri Kontseilua izatea. Bestalde, Donostiako Udalean, Diputazioan edo dena delakoan ahalik eta eraginkorrena izateko, oso garrantzitsua da ahalik eta babes gehien izatea ordezkari horrek.

Beraz, datorren ekainaren 19an, igeldoarron beharren alde lan egingo duen ordezkari sendo eta eraginkorra izateko, bozkatu dezagun!?” ■



**Igeldoko  
Herri  
Kontseilua**

Laguntzailea:

